

TREBAKUNTZA 2018-04: BAT-A

Udal idazki askotan ikusten dugu *bat* zenbatzailea txarto erabilia. Gogoan izan euskaraz *bat* zenbatzailea dela beste edozeren gaineratik. Hortaz, erdaren eraginez eta erdaretan *un/una* indeterminatuak erabiltzen diren moduan erabiltzea ez da egokia askotan. Gaztelaniazko *un/una* guztiak ez dira beti *bat* euskaraz.

OHARRA: Asteriskoz eta kurtsibaz idatzitako esaldiak gaizki daude, eta gainerakoak zuzen.

OHIKO AKATSAK

1. * Idazkariak **txosten bat** egin du kontrako iritzia adierazteko.
2. * Udal langileek **greba bat** egin dute.
3. * **Baimen bat** behar da lokal horretara sartzeko.
4. * **Bazkari bat** egingo dugu ikasturte amaieran.
5. * **Lan bat** aurkitzea zaila da gaur egun.
6. * **Gose bat** daukat! Ez al duzu jateko ezer ekarri?

ZUZENKETAK ETA AZALPENA

Bat zenbatzailea da, eta *bi* edo *hiru*-rengandik bereizteko erabili behar da; bestela, ez da beharrezkoa.

Ad. Udal langileek **greba bat** egin dute.

Hori gaztelaniazko "*una huelga*" espresioaren kalkoa da. Testuinguru gehienetan, zentzugabea da adieraztea *greba bat* egin dutela, eta ez *bi* edo *hiru*.

Ez gaitezen, ordea, beste muturrera joan eta *bat* guztiak debekatu.

Ad.: *Behin batean, herri txiki batean, neskatila bizkor eta bihurri bat bizi zen.*

Ad.: *Hori da gizon bat, jatorra, eskuzabala... eta inoiz gezurrik esango ez dizuna.*

Udalerrri Euskaldunen Mankomunitatea

www.uema.eus

Ez ahaztu zehaztugabetasun handiagoa adierazi nahi denean, *-(r)en bat* erabil dezakegula.

Ad.: *Deiren bat baldin badago, bideratu egin beharko da.*

Azkenik, *bat* osagaia duten hainbat hitz idazterakoan zalantza egiten dugu askotan. Hona hemen hitz horietako batzuk nola idatzi:

*bat-batean *bapatean*

*bat-bateko *bapateko*

*bat-batekotasun *bapatekotasun*

*batik bat *batipat*

bat egin

bat-egite

batean (gurasoekin batean bizi da bere etxean; bata etortzearekin batean joan da bestea).

batera (guztiek batera oihu egin zuten; nirekin batera doa nire itzala; zu iristearekin batera abiatuko naiz).

bat ere (ez du liburu bat ere argitaratu iaiztik).

1. Idazkariak **txostena** egin du kontrako iritzia adierazteko.
2. Udal langileek **greba** egin dute.
3. **Baimena** behar da lokal horretara sartzeko.
4. **Bazkaria** egingo dugu ikasturte amaieran.
5. **Lana** aurkitzea zaila da gaur egun.
6. **Gose naiz!** Ez al duzu jateko ezer ekarri?

Azalpenotatik zerbait ulertu ez baduzu, edo gehiago sakontzeko ariketarik nahi baduzu, jarri harremanetan UEMAko teknikariarekin edo zure udaleko euskara teknikariarekin.

Telefonoz: 946 279 195 (Iratxe)

Posta elektronikoz: iratxe.udalak@uema.eus (Iratxe)

Hurrengora arte!

Udal erri Euskaldunen Mankomunitatea

www.uema.eus

Donibane enparantza 1, 1.a
48380 Aulesti
Bizkaia
94-627.91.95

Aialde 2
20180 Oiartzun
Gipuzkoa
943-26.03.72

Enparan kalea 1, 2.a Sindikatu zaharra
20.734 Azpeitia
Gipuzkoa
943-81.66.99